

**ELA-REN POSIZIONAMENDUA NAFARROAKO POLIZIA-
LEGEEN PROIEKTUA DELA ETA**

2017ko maiatzean

1. Hitzaurrea

ELA Foru Zaineko atal sindikalak eta Tokiko Udaltzaingoen Nafarroako Polizia Legearen aurrean bere posizionamendua plazaratzea komenigarria ikusten dute.

2. Sarrera

PSN, Bildu, Aralar eta Izquierda-Ezkerraren aldeko botoarekin eta Geroa Baien abstentzioarekin onartu zen Nafarroako Polizien 8/2007 Foru Legea aldatzen duen 15/2015 Legea. ELA, UGT, CCOO eta Afapna sindikatuen babesa ere jaso zuen legearen testuak. Sindikatu horiek zuten gehiengoak, une horretan, Foru Poliziaren Pertsonal Batzordean.

Lege-aldaketaren balorazio positiboa egin zuen ELAk, besteak beste soldata-masaren banaketa bidezkoagoa ekarri zuelako, eta UPNren aspaldiko polizia-eredua desmuntatzen lagundu zuelako.

Sasoi hartan, 15/2015 Legea aldatzearen aurka azaldu zen polizia-talde bat (goi-karguak batez ere, eta unitateren bat), eta zenbait mobilizazio egin zituen Legearen izapidetzea oztopatzeko: elkarretaratzeak lege-aldaketa bultzatzen zuten sindikatuen egoitzen aurrean (haietako bat, ELAren egoitzaren parean), agerraldiak parlamentuan, bilerak parlamentuko taldeekin, eta abar. Nabarmen jardun ziren mobilizazio haietan Barne Sailaren egungo zuzendari nagusia eta Foru Poliziaren egungo burua, biak ere zuzenki lotuak Nafarroako Polizien Legearen Proiektu berriaren prestakuntzari.

15/2015 Foru Legearen azken xedapenak agintzen duenez, hura indarrean sartu eta bi urte igaro aurretik Toki Polizien Foru Legearen proiektu bat ere aurkeztu behar da, baina ez du inolaz ere behartzen Polizien Foru Lege berri bat egitera.

Foru Polizian ordezkaritza duten sindikatu guztiak azaldu ziren Polizien Lege Proiektu horren aurka, bai eta udaltzaingotik ordezkaritza duten sindikatu ia guztiak ere.

3. Nafarroako Polizien Lege Proiektu berriaren aurka egoteko arrazoiak

- **Negoiazteko borondaterik eza**

Sindikatuak ez zuten parterik hartu foru poliziaren martxoko mahai sektorialean aurkeztu zen Legearen Aurreproiektuaren prestaketan, eta une hartantxe eratu zen batasun sindikala, Aurreproiektua erretira dadin eskatzeko.

Legegintzaldiaren hasieratik, nabarmena izan da negoziatzeko borondaterik eza; zenbait dekretu eraman dira mahai sektorialera, baina, azkenik, sindikatuen ekarpenei jaramonik egin gabe onartu ziren. Sindikatuarekin negoziatzen ari zelako itxurak egitea zuen helburu Barne Sailaren jokabide horrek, nahiz eta oso bestelakoa izan, egiazki, benetako egoera.

- **Arbitrariotasun handiagoa, lan-baldintza okerragoak kolektibo osoak (goi agintariak izan ezik), eta Nafarroako gainerako funtzionarioekiko konparaziozko bidegabekeria**

Adiskidekeria sustatzen duten zenbait artikulua ditu Lege berriaren IV. Tituluak, eta 15/2015 Legeak debekatzen zituen zenbait portaera berriro ezartzen (kasualitatea: goi agintarien mesederako ziren guztiak).

- Izendapen askeko hornikuntza-sistema, 49. artikulua 1. puntua: "... bai eta sistema horren bidez hornitzea komeni den beste postu batzuen hornikuntza ere, haien funtzioak, konfiantza edo erantzukizun bereziak aintzat harturik". Itzuli da, beraz, Foru Polizian hain hedatua egon den adiskidekeria nagusitzeko aukera.

- Unitateen arteko mugikortasuna: 52. art. "Antolakuntza-arrazoiek hala justifikatzen badute, espezialitate bereko beste unitate batzuetara atxiki daitezke poliziak. Behin betikoa izango da atxikipen hori". Horra hor, beste behin ere, adiskidekeria eta arbitrariotasuna hedatzeko aukera.

- Lanaldiak eta ordutegiak: 54. artik.-ren 1b) 9: gainerako funtzionarioekiko konparaziozko bidegabekeria. Hamabi minutuko konpentsazioa gauez lan egiten den ordu bakoitzeko. Urtean 1.457 ordu lan egiten dute hiru txandatan diharduten gainerako funtzionarioek, eta egutegiak finkatzen dira urtean zehar egin beharreko lanaldiak. Lege honek, ordea, 1.592 orduko lanaldia ezartzen die foru polizia guztiei, edozein dutelarik ere txanda, goizez eta arratsaldean eta asteburuetan lan egiten dutenei izan ezik, zeinek gainerako funtzionarioen lanaldi bera duten (1.554 ordu). Gauez lan egiten den ordu bakoitzeko 12 minutuko konpentsazioa proposatzen du Legeak, eta diru-kompentsazioa, gainerakoei bezala; beraz, litekeena da urtean 1.592 ordutik gora egitea langile horiek. Goi agintariei ez die eragiten lan-baldintzen txartze horrek, goizeko ordutegian egiten baitute lan beti.

- Kendu egin da Txandakako Lanaren Osagarria (% 6): Gainerako funtzionarioekiko konparaziozko bidegabekeria da, haiek kobratzen baitute osagarria. Txandakako lanaren osagarria kentzeak eta txandakako lana ordutan konpentsatzeak denei egiten die kalte, goi-agintariei izan ezik, goizeko txandan egiten baitute lan agintari horiek guztiek.

- Bateraezintasuna / Arduraldi eskusiboa: Bateraezintasun profesionala ezartzen die polizia guztiei (arduraldi eskusiboa, ia-ia), baina ez horri dagokion ordainsaria.

- Lanpostuaren Osagarrian soldata-alde handiak eragin ditzake horrek unitate desberdinetako polizien artean. Betidanik izan da Osagarri arazo larrien iturri Foru Polizian.

- Hasierako soldataren % 20raino igotzen du buruzagitza-osagarriaren portzentajea (15/2015 Legeak ezartzen duena halako bi), horretarako justifikazio objektiborik ez dagoen arren.

- **Malgutasun handiagoa**

- 54. artik.-ren 2. puntua, Malgutasun Erabatekoa: “Berariazko ordutegi-erregimenak ezarriko dira, erregelamenduz, lanak hala eskatzen duen unitateetan, malgutasuna eta prestasuna irizpide harturik”. Berrito ere, adiskidekeria eta bidegabekeria.

- 54. artik.-ren 4. puntua, Malgutasun Erabatekoa: “Honen aurreko ataletan xedatutakoari dagokionez, aldatu daitezke lan-egutegiak eta zerbitzu-koadranteak behar bezala arrazoitutako zerbitzu- edo trebakuntza-premiekin hala eskatzen badute. Urtean hamar laneguneko izan daiteke, gehienez ere, aldatutako ordutegi eta zerbitzuen portzentajea. Lan-baldintza okerragoak eta lana eta familia uztartzeko zailtasun gehiago dakar neurri horrek, lanaldiak desarautu egiten baititu, eta langileen eskubideen galera eragiten.

- **Funtzio Publikoaren Estatututik are urrutiago poliziak**

“Polizien funtzioen berezitasunagatik” aldatzen omen die Legeak Estatutua poliziei. Beste behin ere, gainerako funtzionarioekiko konparaziozko bidegabekeria baten aurrean gaude; Funtzio Publikoaren Estatutura geroz eta gehiago hurbildu beharrean, geroz eta gehiago ari gara urruntzen.

- **Zehapen-erregimena, geroz eta gogorragoa**

15/2015 Legearekin, gainerako funtzionarioen erregimenaren oso antzekoa da poliziena; lege berriak ezarri nahi duenak, aldiz, gogortu egiten du polizien aurkako zehapen-erregimena: handitu egiten ditu preskripzio-epeak, bai faltenak, bai zigorrak; Pertsonal Estatutuak egun jasotzen dituenak, berriz, gainerako funtzionarioen epeen oso antzekoak dira.

- **Bigarren jardura**

Foru Polizian bertara edo Nafarroako beste polizia-erakunde batzuetara mugatzen du lege-proposamenak bigarren jardura, baldin eta horri buruzko hitzarmenik sinatu badute herri-administrazioek. Alabaina, antzua da proposamen hori, ez baitago aurrera eramateko nahikoa lanposturik. Gure ustean, bigarren jarduerak aspalditik beste polizia-erakunde batzuekin duten bezala antolatu beharko litzateke.

- **Zertan eragiten dien toki-poliziei**

ELAren ustez, proiektu honek oso eragin negatiboa izan dezake udaletxeetako negoziazio prozesuetan. Egia da testuak berezko hitzarmen duten kasuetan, udaltzainen lan baldintza honek ezarriko dituela esan duela. Baina gainera dagoen lege batek murrizketa ezartzen baditu gure akordioarekiko, hobekuntza hoiek mantentzea alkateen esku geratuko da. Gainera hitzarmen propioa ez dagoenean, Lege Proiektu honek ezartzen dituen murrizketak eragin osoa izango dute.

Baita ere, kolektibo horren beste arazo batzuk ez ditu konpontzen Lege Proiektuak: Toki Poliziaren Laguntzailearen postuari bere horretan eusten dio 1.2.e artikulua. “Udaltzaingoaren Laguntzailea: Udaltzaingoa daukaten Nafarroako Toki Erakundeek administrazio-erregimenaren pean behin-behingo kontratatzen dituzten langileak erakunde horietako langileei lagun diezaiten, absentismoa, plantilla organikoetako lanpostu hutsen behin-behineko hornidura edo segurtasun publikoko premien artapena direla-eta behar adina langile finkorik ez badago eginkizun horietarako”. Arazo ugari ari da sortzen postu hori, profesionalen ordezkari profesionalak ez diren langileak kontratatzen baitira. Ez dago onartzerik low-cost polizia-eredu hori eta kendu egin behar da, kontratatzen den jendeak ez baitauka behar adinako prestakuntzarik eta prekarietate-egoeran lan egiten baitu.

Bestalde, honela arautzen du 1.2.f. artikulua Toki Poliziaren zerbitzua: Toki Poliziaren Zerbitzua: Udaltzaingo propioa ez duten Nafarroako toki-erakundeek ematen duten polizia-zerbitzua. Toki Poliziaren zerbitzua eztabaidagai izan zen Toki Polizien Batzordean, zeina polizia guztiek eskubide eta eginkizun berberak izatearen alde azaldu baitzen, edozein dela ere udala. Legeak “aguazilak” deitzen die toki-poliziei, aipatutako batzordeak zioenari jaramonik egin gabe. Udalek erabaki behar dute zer nahi duten: udaltzainak, ala zerbitzu anitzetarako langileak. Bi gauzak batera, ordea, ezinezkoa da. Udaltzainak nahi badituzte, % 100 izan behar dute udaltzain, eta haien eskubide eta obligazio berak eduki.

4. Ez da egia foru-poliziek astean 2,8 lanegun egiten dituztela

Administrazioko gainerako sektoreetan bezala egiten dira egutegiak:

- 1.592 ordu, goizeko txandan lan egiten dutenek. Hots, 4,33 lanegun astean.
- 1.554 ordu, goizeko eta arratsaldeko txandetan aritzen direnek. Hots, 4,22 lanegun astean.
- 1.457 ordu, goizez, arratsaldez eta gauez egiten dutenek. Hau da, 3,96 lanegun astean.

Manipulazio onartezina da lan egiten diren egunen zenbaketa horretara hauek ere gehitzea: baja-aldiak eta librantza fisikoak zein lanordu gehiegi metatzeagatik tokatzen direnak. Foru Polizia talde pribilegiatua eta lan gutxi egiten duena sinetsarazi nahirik iritziz publikoari, zenbait adierazpen publiko egin ditu Barne Sailak. Guztiz lekuz kanpokokoak iruditzen zaizkio gure sindikatuari adierazpen horiek.

Proba fisikoak gaintzeagatik ematen den konpentsazioari dagokionez, berriz, gogora dezagun haren jatorria: Foru Polizia hedatu zenean, kirol-instalazioetara joaten ziren polizia-agentek (Antso Azkarra gimnasioa...), astean zenbait egunez. Lanorduetan joaten ziren gimnasiora poliziak, eta ez zeukaten inongo probarik gaintu beharrik. Gobernuaren iritziz, funtsezkoa zen Poliziarentzat agenteen prestakuntza fisikoa, eta hala da gure ustean ere, Foru Poliziarentzat ez ezik udaltzaintzat, suhiltzaileentzat, basozaintzat eta abarrentzat ere. Gerora, merkeago ateratzen zitzaioala ikusirik, eskaintza hau egin zuen Administrazioak: 18 egun konpentsatzea urtean (126 ordutik 180ra bitartean), baldin eta urtean proba fisiko jakin batzuk gaintzen baziren. Ordu-kopuru hori behar zuten agenteek beren prestakuntza fisikorako eta aipatutako probak gaintzeko, Administrazioak zioenez. Gerora, egungo ordu-kopurua ezarri zen (126), eta 2005ean, berriz, haien ordezkari konpentsazio ekonomikoa emateko aukera. Prestakuntza fisikorako bi ordu eta 25 minutu, astean, ematen dute 126 konpentsazio-orduek. Ezinbestekoa deritzogu polizien prestakuntza fisikoari, bai eta suhiltzaileenari ere. Gimnasioak izaten dituzte suhiltzaileek beren parkeetan, eta lanorduetan erabiltzen dituzte; funtsezkoa dute prestakuntza hori, izan ere, beren lanerako. Halaber, ezinbestekoa deritzogu ikastaroari (trebakuntza espezifiko), bai Osasunbidean egiten direnei, bai lanorduetan ematen direnei. Ez da inolako pribilegioa proba fisikoak gaintzeagatik ematen den konpentsazioa, eta bat dator poliziek beren lana egiteko behar duten egoera fisiko egokia behar dutela dioen irizpidearekin.

5. ELAren proposamenak

- **Aurreproiektua erretiratzea eta negoziazio-prozesu bat abiaraztea, 15/2015 Legea oinarri hartuta**

Gure ustean, egoera desblokeatu egingo luke aurreproiektua erretiratzeak, edo testu berri bat adostu arte Legebiltzarreko haren tramitazioa bertan behera uzteak behintzat. ELAren iritziz, 15/2015 Legea oinarri hartuta hitzarmenak lortzeko negoziazio-prozesu bati ekin behar zaio Mahai Sektorialean. Prest dago ELA Legearen testua aldatzeko, negoziazio bidez betiere, haren akatsak konpontzeko, halakorik balego. ELAren iritziz Parlamentuan emendakinen epea zabaltzeko hartutako erabakia ez du egoera hau konponduko.

Gogora dezagun, bestalde, Foru Poliziaren sindikatu guztiek eta Udaltzaingoaren ia guztiek sinatu zutela testu bat, martxoaren 28an, hau eskatzeko: aipagai dugun lege-aurreproiektua erretiratzeko.

Gure sindikatuaren ustean, oztopoa dira, negoziatioari ekiteko, egun Barne Saileko zuzendari nagusi eta Foru Poliziaren buru direnek 15/2015 Legearen tramitazioa egitean izan zuten aurkako jarrera erabatekoa. Horregatik, ELAren iritziz, lagungarria litzateke, testu berri bat negoziatzeko, bi agintari horien ordezkari batzuk jartzea.

Bestelako egoera bat ekarriko luke testua erretiratzeak, eta 2016ko urriaren 13an Nafarroako Legebiltzarrean Geroa Baik, Bilduk, Podemosek eta Ezkerrak erabaki zutenarekin bat etorriko litzateke. UPNk aurkeztutako mozio bat eztabaidatu zen egun hartan Legebiltzarrean. 15/2015 Legea indargabetzea eskatzen zuen aipatutako mozioak, baina ez zuen egin aurrera, bat egin baitzuten haren aurka Nafarroako Gobernua osatzen duten lau alderdiek.

- **Indargabetzea 79/2016 Foru Dekretua, Foru Poliziaren Lanorduen Araudia onartu zuena alegia**

Arazoa izan da dekretu hori laneko txandak eta lanaldiak antolatzeko. Foru Poliziaren zuzendaritzak berretsi egin du 15/2015 Legea aldatzeko asmoa, arazoak eragiten omen dituelako laneko txandak eta lanaldiak antolatzeko (hala dio Legearen aurreproiektuko arrazoi-zerrendak). Arazoa, ordea, ez datza Lege horretan, 79/2016 Foru Dekretuan baizik.

- **ELAren polizia-eredua**

1. Zerbitzu publikoa da polizia

Herritarren segurtasuna bermatzea eta haiei laguntzea dira, ELAren iritziz, polizia demokratiko baten eginkizun nagusiak; ororen gainetik, zerbitzu publikoa izan behar du poliziak.

Baina zerbitzu publiko izatea bateraezina da polizia-erakundeak zuzentzen dituzten talde eta kargu politikoen interesekin eta haien alderdien helburuekin; ez dira inolaz ere elkarrekin nahasi behar. Horregatik, printzipio horren aurkako jardura guztiak arretaz zainduko eta aztertuko ditu sindikatuak. Halaber, guztiz neutrala izan behar dute Poliziak, erakunde gisara, eta polizia-agente bakoitzak gizarteko aukera eta nortasun politiko, sozial, sindikal, kultural, erlijioso, nazional eta abar guztiekiko. Legearen aurrean berdina dira herritar guztiak, eta ezin da egin inolako diskriminaziorik jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia edo beste zeinahi ezaugarri pertsonal zein sozial dela eta. Bermatu egin behar du poliziak berdintasun hori, eta bazterrera utzi aurreiritzi eta aurrejuzgu oro.

Polizia hurbila nahi dugu, gizartean ondo txertatua. Ondo ezagutu behar ditu poliziak zerbitzatzen dituen komunitateen premia zehatzak, oso desberdinak izan baitaitezke, elkarrengandik oso gertu egon arren komunitate horiek. Hurbiltasun hori abiapuntu harturik, polizien laneko lehentasunei buruzko iritzia emateko aukera izan behar dute herritarrek ere. Denbora eta baliabide gehiago, eta trebakuntza, prebentzio, jarraitutasun, deszentralizazio... handiagoa eskatzen ditu hurbiltasuneko eredu horrek, bai eta agintea eta lidergoa baliatzeko bestelako modu bat ere, polizia-eredu autoritarioago edo hierarkikoagoen aldean.

2. Polizia, erakunde zibila

Barne-egituraketak izan behar du poliziaren izaera zibilaren lehen adierazle. Egia da agente-katean oinarritzen dela poliziaren eguneroko jarduna. Ezinbestekoa da kate hori, bai ikuskaritza behar bezala egiteko, bai erakunde barruan kontuak eman eta argitzeko, hau da, diziiplina eta kontrola ezartzeko eta zigorgabetasunaren prebentzioa ziurtatzeko. Agente-kateak ikuskatzen ditu polizia-agenteari, aztertzen ditu operazioak, eta norberaren zein mendekoen lanaren berri ematen du.

Izaera zibili hori dela eta, laguntza-funtzioak lehentasuna izan behar du, gainerako polizia-funtzioen aurretik. Bistakoa denez, ahalmen handiak ditu poliziak; besteak beste, indarra erabiltzekoa, eta jendea atxilotzekoa. Zuzeneko eragina dute ahalmen horiek herritarren bizimoduan, eta giza eskubideen urraketa larriak ekar ditzakete.

Indarraren erabilera saihesten ahalegindu behar du beti poliziak; erabiltzen badu, berriz, egoerarekiko proportzionala izan behar du indarrak, eta helburu bakarra, indarkeriazko ekintzak eragozteak; xede hori lortutakoan, utzi egin behar dio indarra erabiltzeari.

3. Polizia profesionala

Poliziaren eskumena eta gizarteak erakunde horrekiko duen konfiantza areagotu egin daitezke, baldin eta kontuak emateko mekanismo zorrotz eta eraginkorrak jartzen badira. Ez du inoiz zigorrik gabe geratu behar poliziaren jokabide desegokiak, ez giza eskubideen urratze larriek, ez arau-hauste arinek.

Poliziak gizartearen aurrean kontuak eman ditzan, ezinbestekoa da horretarako borondate politikoa egotea eta botere betearazleren konpromisoa. Funtsezko lau instantzia hauei eman behar dizkie kontuak poliziak: bere agente-kateari; hiru botereei (betearazleari, legegileari eta judizialari), gizarteari eta, azkenik, ikuskaritza-organismo independenteei (Arartekoari, nazioarteko erakundeei...). Horregatik, zerbitzatzen den gizartearen kontrola bermatzeko behar adina partaidetza-formula sortu behar dira.

Funtsezkoa da, horretarako, poliziako langileen etengabeko trebakuntza, bai teknika polizialak hobetzeko, bai demokraziaren balioak eta laguntza-jarduera zehazkiago ezagutzeko.

Agintarien hautaketa-sistemak, berriz, berdintasunezko baldintzen arabera egiaztatutako gaitasuna izan behar du oinarri, eta alde batera utzi behar ditu irizpide ez-profesionalak; besteak beste, kidetasun politikoa eta pertsonala.

• **Polizia integral baten alde**

Nafarroako polizia-erakundeek zenbait eskumen berenganatu behar dituztela, progresiboki, uste du ELAK: trafikoa, ingurumena, hiri-segurtasuna..., eta eurek bakarrik izan behar dutela eskumen horien jabe Prozesu horren lagungarri, erretiratu jona behar dute beste polizia-indar batzuek. Nafarroan mila biztanleko zazpi polizia egoteak (Europa Batasuneko batzuek bestekoaren bikoitza) beste polizioen presentzia ordenatu beharra dagoela erakusten du.

Nafarroak Gobernuak egin behar duen autogobernuaren defentsak, Foru Zaingoak eskuduntza gehiago hartzearen aldeko jarrera ere suposatu beharko luke.

Honenbestez, epeak finkatu behar dira eskumen berriak jasotzeko eta behar adina agente izateko. Izan ere, alferrik da eskumen berriak eskuratzea haiez baliatzeko nahikoa bitartekorik ez badago, edo langileei lanordu gehiago eginarazten bazaie, edo haien lan-baldintzak okertzen.

Bereziki interesgarria da, horretaz ari garela, Kontuen Ganberak Foru Poliziaren 2013ko ekitaldiaren fiskalizazioa dela-eta egindako txostena. Hona zer dioen txostenak: 69 milioi euro jaitzi da Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoari Nafarroako Gobernuak egiten dion ekarpena Foru Poliziak zenbait eskumen eskuratu ondoren; hiri-segurtasunaren alorreko gastua, berriz, 50 milioi euro ingurukoa da. Hori dela eta, urtean 20 milioi euro inguru aurrezten ditu Nafarroako Gobernuak Foru Poliziak eskumenak bereganatu zituenetik.

- **EEP bat adostu behar da**

Plan Gidariaren zirriborroa prest dago jada, baina zehaztu egin behar da Enplegu Eskaintza Publikoaren egutegia. Langile gehiago hartzeko aukera dago, gaur egun, lehentasunezko sektoreetan; besteak beste, gure honetan.

Gainera, Foru Poliziaren arazo larrienetako bati aurre egiteko aukera emango luke EEPk: agenteen adinari (47 urte da foru-polizien batez besteko adina).

- **Genero-ikuspegia**

Neurri eraginkorrak hartu behar dira emakumeek eta gizonek aukera berberak izan ditzaten polizia-lanean jarduteko, eta behar diren pausoak eman behar dira geroz eta emakume gehiago jardun dadin Nafarroako polizia-erakundeetan, bai agente-kopuru osoaren portzentajea, bai ardura-karguetan.

- **Bermatu egin behar dira herritarren hizkuntza-eskubideak**

Zerbitzuak Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan ematea izan behar du xede polizia-ereduak, herritar bakoitza berak aukeratzen duen hizkuntzan artatzeko.

6. Ondorioak

- Gure ustean, egoera desblokeatu egingo luke aurreproiektua erretiratzeak.
- ELAren iritziz, 15/2015 Legea oinarri hartuta hitzarmenak lortzeko negoziazio-prozesu bati ekin behar zaio Mahai Sektorialean. Gure ustez Parlamentuan emendakinen epea zabaltzeko hartutako erabakia ez du egoera hau konponduko.
- ELAk polizia hurbila, profesionala, zibila, genero ikuspuntua kontutan edukitzen duena, eta herritarron hizkuntza eskubideak bermatzen dituen defendatzen du.
- ELAk polizia integral baten alde egiten du. Prozesu horren lagungarri, erretiratuz jona behar dute beste polizia-indar batzuek.
- ELAk ezinbestekoa jotzen du LEP prozesu bat aurreikustea eskuduntza berriak ez daitezen lan baldintzak prekarizatzearen kontura hartu.